elnika

# MENUA

HASIERA ................................................................ 3
NOTAK .................................................................... 5
HUTSEGITEAK ......................................................... 6
ARAU HAUSTEAK...................................................... 7
OHARRAK ............................................................... 8
JANGELA ............................................................... 10
GARRAIOA............................................................ 11
KANPO EKINTZAK .................................................. 12
LIBURUEN GESTIOA ............................................... 13
DOKUMENTAZIOA .................................................. 14

BESTE ERABILPEN BATZUK..................................... 15

# HASIERA

Login-eko pantaila igaro eta gero gurasoak ikus dezakeen pantailaren (home-aren) itxura bi motatakoa izan daiteke, a) eta b) hurrenez-hurren.



a)



b)

a) kasuan, gurasoak ez du mezurik.
b) kasuan, gurasoak hiru mezu ditu. Hiru horietatik lehena irakurrita dago (sobretxoa irekita) eta beste biak irakurri gabe (sobretxoa itxita).

Mezua ikaslearen irakasleak edo tutoreak bidalitakoa izan daiteke. Horretarako mezu bakoitza irudi batekin lagunduta ageri da eta horretaz gainera nork bidalitakoa den zehazten da jatorria atalean.

Gurasoak mezua irakurri duela jakinarazteko ADOS laukia markatu eta gorde botoia sakatu behar du eta mezua ezkutatzeko berriz EZK laukia markatu eta gorde botoia sakatu. Bi eragiketa hauek pauso banatan zein aldi berean egin daitezke (mezua irakurri eta aldi berean ezkutatu nahi badugu).

Mezu batek fitxategi bat atxikita eduki dezake, baino ez gehiago. Fitxategia irekitzeko nahikoa da klik bat egitea fitxategiaren gainean.

# EXPEDIENTEA

Seme edo alabaren espedientea ikusteko aukera ematen du.
Aukeratu zein seme edo alabaren espedientea ikusi nahi duzun.




Behin aukeratuta era honetako itxura duen pantaila agertuko da, non ikaslearen maila kurtsoa, taldea, eta dituen gaiei buruzko informazioa agertuko den.

PATXI ALTUNA AZKOITIA

**Tutorea OLATZ ALBERDI ARANGUREN da.**
Maila: BATX Kurtsoa: 1 Taldea: A

| Gaia | Irakaslea | Atzerat. |
|---|---|---|
| GORPUTZ HEZKUNTZA | OLATZ ALBERDI ARANGUREN | ☐ |
| FILOSOFIA1 | ANDER ARRIETA SEGUROLA | ☐ |
| GAZTELANIA ETA LITERATURA | JONE ARCELUZ URKIOLA | ☐ |
| INGELESA | JOSE MARI AIZPURU | ☐ |

# NOTAK

Seme edo alabaren notak ikusteko aukera ematen du.
Aukeratu zein seme edo alabaren notak ikusi nahi dituzun eta zein ebaluaketakoak.




Aukeraketaren ostean noten berri ematen digun pantaila agertuko da:




| Gaia | Atzerat | - | Nota | - | Errek | Prozed | Kontze | Jarrer | | | OHARRA | Ohar |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| GORPUTZ HEZKUNTZA | | | 5 | | | O | OO | OO | | | EGIN DUEN AHALEGINA EZ ZAIO ALFERRIKAKOA GERTATU | |
| FILOSOFIA1 | | | 7 | | | 0 | OO | 0 | | | | |
| GAZTELANIA ETA LITERATURA | | | 8 | | | OO | OO | O | | | SAIATZEN DA, BAINA ASKO KOSTATZEN ZAIO. | |
| EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA | | | 5 | | | O | O | 0 | | | | |
| INGELESA | | | 8 | | | OO | OO | OO | | | | |

# HUTSEGITEAK

Seme edo alabaren hutsegiteak ikusteko aukera ematen du.
Aukeratu zein seme edo alabaren hutsegiteak ikusi nahi dituzun eta zein ebaluaketakoak.




Aukeraketaren ostean hutsegiteen berri ematen digun pantaila agertuko da:




| - | Gaia | Data | Ordua | Ebal | Falta Mota | Jarrera | Etxeko lanak | Berandu iritsi | Oharra |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | GAZTELANIA ETA LITERATURA | 11/11/2010 | 1 | 1 | EZ JUSTIFIKATUA | | | BAI | |
| | FILOSOFIA1 | 09/11/2010 | 3 | 1 | KALERATUA | | | EZ | |
| | GORPUTZ HEZKUNTZA | 05/11/2010 | 3 | 1 | BERANDUTZEA | | | EZ | |
| | EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA | 04/11/2010 | 1 | 1 | GREBA | | | EZ | |
| | FILOSOFIA1 | 04/11/2010 | 2 | 1 | GREBA | | | EZ | |
| | GAZTELANIA ETA LITERATURA | 04/11/2010 | 3 | 1 | GREBA | | | EZ | |
| | GORPUTZ HEZKUNTZA | 04/11/2010 | 4 | 1 | GREBA | | | EZ | |
| | INGELESA | 04/11/2010 | 5 | 1 | GREBA | | | EZ | |

# ARAU HAUSTEAK

Seme edo alabaren arau hausteak ikusteko menuan honako aukera egingo dugu "Hutsegiteak -> Arau Hausteak". Aukeratu seme edo alaba eta beronen arau hauste guztiak izango ditugu pantaila aurrean.



"Mota" zutabean kolore bat agertuko zaigu eta beronen esan nahia honako hau:

- Berdea: Desegokia
- Horia: Aurkakoa
- Gorria: Larria

"Jokabidea" zutabean seme edo alabak izan duen jokabidearen deskribapena izango dugu.

"Neurriak" zutabean seme edo alabari ezarri zaizkion neurriak jokabideari aurre egiteko.

# OHARRAK

Seme edo alabaren tutorearekin harremanetan jartzeko aukera ematen du.




Horretarako aukeratu seme edo alaba eta automatikoki tutoreari dagokion testu koadroa bete egingo da.




Ondoren tutoreari idatzi nahi zaion mezua idatziko da falta den testu koadroan eta mezua bidaltzeko sobreari sakatuko zaio.

Gurasoak berari bidali dizkion mezuak ere erantzun ditzake. Hasierako pantailara joango gara eta bertan ikusi zein botoi klikatu behar den mezua erantzuteko.






Amaitzeko gurasoak bidalitako mezuak gestionatu ditzake.





98GARATE GOMEZ familia

Expediente Notak Hutsegiteak Oharrak Jangela Garraioa Kanpo ekintzak Liburuen gestioa

| - | - | DATA | OHARRA | HELBURUA | FITXATEGIA | Ken |
|---|---|---|---|---|---|---|
| ✔ | | 11/11/2010 | Niregatik ados, asteartean arratsaldeko 5etan gelditukо gara, gelara joango naiz. | ALBERDI ARANGUREN OLATZ | | ○ |
| | | 11/11/2010 | Euskarako irakasleak boletinean jarri du gehiago irakurri behar duela baina ni ez nago ados, egunero irakurtzen baitu. | ALBERDI ARANGUREN OLATZ | | ○ |

1

Bertan ikus daiteke bidali dituen mezu guztiak eta nork irakurri duen berak bidalitako mezua eta nork ez.

# JANGELA

Gurasoak abixatu dezake jangelako arduradunari bere seme/alaba joango dela edo ez dela jangelara joango.







Jangelara joaten bada, arduradunak nolabaiteko jarraipen bat emango dio, ondo jaten duen, txukuntasuna, jarrera, etab.




| Ikasle | Jarrera jangelan | Janariarekiko jarrera | Garbitasuna | Oharra |
|---|---|---|---|---|

# GARRAIOA

Gurasoak eInikan ikus dezake bere seme/alabak garraioa hartzen duten eskolara joateko, zein ibilbide-tan eta zein Geltoki.

## GARRAIO IBILBIDE ETA GELTOKIA

| Seme-alaba | Maila | Ibilbidea | Geltokia |
|---|---|---|---|
| 31154GARCIA GONZALEZ ELISABET | LH 1 / A | AZCOITIA-AZPEITIA | CHERLOIE |
| ALTUNA AZKOITIA PATXI | BATX 1 / A | AZCOITIA-AZPEITIA | CHERLOIE |

# KANPO EKINTZAK

Ikastetxean egiten diran ekintzen berri ere eduki dezake guraso batek.

## EKINTZAK

| Seme-alaba | Aktibitatea | Data | Deskribapena |
|---|---|---|---|
| 31154GARCIA GONZALEZ ELISABET | AQUARIUM | 05/05/2009 0 | |
| ALTUNA AZKOITIA PATXI | TEKNOLOGI MUSEOA | 03/05/2009 0 | |
| ALTUNA AZKOITIA PATXI | BARTZELONARA BIDAIA | 16/04/2009 0 | |

# LIBURUEN GESTIOA

Gurasoek jakin dezakete bere seme/alabek aurten zein liburu dituzten “alokatuta” eta berauen egoera.

ELISABETH 31154GARCIA GONZALEZ

| KODEA / DATA | GAIA / INZIDENTZIA |
|---|---|
| NAT13 | Natur, Gizarte eta Kultur ingurunea |
| GAZT13 | Gaztelania eta Literatura |
| EUS13 | Euskara eta Literatura |
| 06/04/2011 | Está un poco sucio |
| EUSK1_13 | Euskara eta Literatura |
| ING13 | Atzerriko hizkuntza(Ingelera) |

# DOKUMENTAZIOA

Gurasoek eskuragarri dute ikastetxeak eskegitako dokumentuak. Horretarako, seme/alaba aukeratuko dugu lehendabizi, ondorioz, matrikulatuta dugun ikasketako ikastetxeko dokumentazio guztia eskuragarri izango dugu.




Dokumentua ikusi edota deskargatzeko, dokumentuaren eskubitara dagoen kliparen gainean klikatuko dugu.

# Beste erabilpen batzuk

